



TARTEKAKO CATERING-ZERBITZUAK Oinarrizko Maila

Prozedura irekiaren bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

1.1. Kontratuaren xedea

Atal honetan, garrantzitsua da aipatzea ingurumen-alderdiak kontuan hartuko direla¹:

1. Koadroa

Catering-zerbitzua ingurumen-irizpideak kontuan hartuz kontratatzea, elikagaien produkzioak eta zerbitzuak dituen inpaktuak murrizteko.

1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

1.2.1. Elikagai-produktuetarako irizpideak

Elikagai-produktuetarako irizpideak aplikatuko dira administrazioak kontratatutako zerbitzu² guztietan. Beraz, kontratuan gosaria eta bazkaria sartzen badira, gosaritarako nahiz bazkaritarako proposatutako zerbitzuek bete beharko dituzte irizpideak. Informazio hori erraz bildu eta ebaluatu ahal izateko, zerbitzu guztietarako proposamena xehetasunez azaldu beharko du enpresak. Horrez gain, hornitzaileentzako zerrendaren ondoren agertzen den “**2³. eranskina: tartekako catering-zerbitzuko elikagaien eta edarien taula**” eranskina osatu beharko du.

¹ Ingurumen-irizpidez gain, lizitazio honek gizarte-irizpieetako ere joera du. Adibidez, hemen aipatzen diren ingurumen-irizpideekin batera, bidezko merkataritza produktuak sartu ahal dira.

² Zerbitzua da kontratu barruan zerbitzatu behar den gosari, hamaiketako, bazkari, askari eta afari bakoitza.

³ 2. eranskina kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentuan dago (hemen eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

2. Koadroa

Administrazioak agindutako zerbitzu bakoitzak hurrengo irizpideak beteko ditu:

- Menuetako produktu nagusiak [opilak barne hartzen dituzten zerbitzuetan izan ezik] (hau da, plateren izenetan agertzen direnak; adibidez, ziazerba-tortilla edo legatza saltsa berdean) urte-sasoikoak izango dira⁴. Hau da, aire zabalean hazten diren produktuak edo eskualdean sasoiari-sasoiari arrantzatzen direnak. Gida modura 5. eranskineko urte-sasoiko produktuen egutegia erabil daiteke⁵.
 - Zerbitzatutako elikagai edo plater batek ere ez du izango formulazioan genetikoki eraldatutako organismoetatik datozen osagaiak izateagatik etiketatuta egon behar duen produkturik, genetikoki eraldatutako elikagai eta pentsuei buruzko 1829/2003 EE Araudia eta genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) trazabilitateari eta etiketatuari y horiekin produzitutako elikagai eta pentsuei buruzko 1830/2003 EE Araudia betez.
 - Kafeak ezinbestean etorri beharko du nekazaritza ekologikotik, 834/2007 (EE) Araudiaren edo geroagoko bertsioen arabera⁶.
 - Menu ekologikoko zerbitzu guztiek ezinbestean izan beharko dute honako osaera hau: osagaien % 10ek nekazaritza ekologikoa izan behar du, 834/2007 (EE) Araudiaren edo geroagoko bertsioen arabera.
- Beste % 90etatik, pisu-ehuneko baloratuko da:
- Nekazaritza ekologikoko beste produktu batzuk
 - Produkzio integratuko (PI), Euskolabeleko edo baliokideko irizpideak bete dituzten landare-produktuak.

Produkzio integratuko irizpideak produktu hauetarako finkatu dira: zerbak, letxuga, piperra, tomatea, patata eta kiwia⁷.

Euskolabelek produktu hauetarako finkatu ditu irizpideak: Gernikako piperra,

⁴ Elikadura-zerbitzuetarako fitxan azaltzen den bezala, gomendagarria da animalia-produktuen kontsumoa murriztea, ingurumen-inpaktu handia baitute. Horrenbestez, menuak zehazterakoan, hautabide begetariano bat aurkezteko edo animalia-produktuak dauzkaten zerbitzuen kopurua mugatzeko eska liteke.

⁵ 4. eranskina kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentuan dago (hemen eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

⁶ 834/2007 Araudia 2020ra arte egongo da indarrean. 2021etik aurrera, berriz, 2018/848 (EB) Araudia izango da indarrekoa. Horregatik, lizitazioaren argitalpen-egunaren arabera egokitu beharko da erreferentzia.

⁷ Euskolabelek mahatsentzako eta sagarrentzako ere finkatu ditu irizpideak, baina ardo eta sagardo-ekoispenarako gehienbat.

Ibarrako piperminak, tomatea, letxuga, babarrunak, sagardoa, olio eta patatak.

- Estatuko edo nazioarteko estandarretan definitutako animalia-ongizateko estandar hobeak bete dituzten animalia-jatorriko elikagaiak (haragia, esnea edo/eta arrautzak), adibidez, Euskolabela edo baliokideak.

Euskolabelek produktu hauetarako finkatu ditu animalia-ongizateko irizpideak: behikiak, esneko arkumea, oilaskoa, txerria, esnea, arrautzak eta eztiak.

- Itsasertzeko espezieak edo elikadura-katearen beheko mailako arrainak eta itsaskiak (hots, belarjaleak), adibidez, sardinak, antxoak, titxarroak... edo MSC, ASC, Euskolabel edo baliokidean definitutako jasangarritasun-irizpideak jarraituz harrapatuta.

Euskolabelek produktu hauetarako finkatu ditu arrantza-irizpideak: hegaluzea eta hegalaburra.

MSC eta ASC arrantza-irizpideak dituzten produktuak ingelesez kontsultatu daitezke estandar horien webguneetan⁸.

Lizitatuzaileek zerbitzurako menuen proposamenak aurkeztu beharko dituzte, 2. eranskinean zehaztuta erabiliko dituzten produktuak, gramajea eta horien ingurumen-ezaugarriak⁹.

1.2.2. Bilgarrien irizpideak

3. Koadroa

- Elikagaiak berrerabil eta itzul daitezkeen garraioko ontzietan (kaxa eta erretiluetan) hornituko dira.
- Iturriko ura txarroetan zerbitzatuko da beti, eta inoiz ez ur botilaratua.
- [Jaiak ez diren ekitaldietan] Edari hotzak (freskagarriak, zukuak, ardoa, etab.) beirazko edalontzietan zerbitzatuko dira.

⁸ MSC estandarretarako (Marine Stewardship Council), <https://fisheries.msc.org/en/fisheries/@@search>; ASC estandarretarako (Aquaculture Stewardship Council), <https://www.asc-aqua.org/what-you-can-do/take-action/find-a-product/>.

⁹ 2. eranskina kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentuan dago, (hemen eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

1.2.3. Baxera, mahai-tresna eta mahai-zapietarako irizpideak

4. Koadroa

- [Jaiak ez diren ekitaldietan] Erabilitako baxera, mahai-tresneria eta beirateria guztia berrerabilgarria (kristala, portzelana, metala) izango da.
- Mahai-zapiak eta ezpainzapiak gutxienez paper birziklatuzkoak izango dira.
- Oihalezkoak izatea hobetsiko da.
- [jaietan] Baxera, beirateria eta mahai-tresnak biodegradagarriak eta konpostagarriak izatea baloratuko da, EN 13432 araua edo baliokidea betez (janari-hondakinekin batera biltzeko); edo, bestela, berrerabilgarriak izatea. Bigarren aukera horretarako, enpresa horiek berreskuratzeko itzultze-sistema bat antolatu beharko du esleipendunak. Bigarren aukera hau positiboki baloratuko da.
- Esku- eta mahai-zapiak gutxienez paper birziklatuzkoak izango dira.
- Horiek material berrerabilgarritzkoak izatea baloratuko da (oihalezkoak, hulezkoak, etab.).

1.2.4. Garraiorako irizpideak

5. Koadroa

- Elikagai elaboratuak garraiatzeko baliatuko diren ibilgailuek B sailkapenerako emisio-baldintzak bete beharko dituzte gutxienez, DGTren bereizgarriari jarraikiz (hemen eskuratu daiteke: <http://www.dgt.es/es/seguridad-vial/distintivo-ambiental/>).
- Baloratu egingo da ibilgailu horiek gas kutsagarrien emisio txikiagoak izatea; hots, DGTren ingurumen-bereizgarriaren arabera C, ECO edo Cero sailkapena edukitzea.
- Horretarako, 3. eranskina¹⁰ behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

¹⁰ 3. eranskina kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentuan dago (hemen eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

2. Gauzatze-irizpideak

6. Koadroa

Gainera, enpresa esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:

Komunikazioa

- Enpresak informazio-panelak ipini beharko ditu zerbitzu-puntuetan, mahaietan edo administrazioarekin erabakitako bestelako tokietan, eta panel horietan produktuen jatorria zehaztu beharko dute; hots, zein diren nekazaritza ekologikokoak, zein ekoizpen integratukoak, zein animalien ongizate-estandar handienekoak, zein arrantza jasangarrikoak, eta zein toki-ekoizpenekoak –sukalde nagusitik 160 km-ko erradioaren barnean ekoitziak–.

Hondakinak

- Kontratua gauzatzean sortutako hondakinak gaika bilduko dira, frakzio gaien arabera: papera eta kartoia, ontziak (plastikoak, latak, tetrabrikak, poliestireno hedatua), beira, materia organikoa, hondakin bereziak (olio erabiliak eta bestelakoak) eta errefusa.
- Hiri-hondakinen antzeko hondakinak gaikako dagozkien hiri-edukiontzietara eramango dira. Hondakin bereziak (kasu baterako, olio erabiliak) kudeatzaile baimendu edo garbigune baten bitartez kudeatuko dira. Kontratuaren hasieran, hondakin bereziak kudeatuko dituzten kudeatzaile baimenduen erreferentziak

3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar dira baloratu ahalko den elementu bakoitzari emango zaion haztapena eta hura ebaluatzeko formula edo parametroak.

Adibide gisa, catering-zerbitzuak kontratatze balorazio-irizpideak aurkezten dira, formula matematiko bidezko balorazio automatikorako irizpideak¹¹, balorazio automatikoko bestelako irizpideak eta balorazio subjektiboko irizpideak bereizita:

¹¹ Zenbait formula matematiko erabil daitezke (hirukotearen erregela sinplea, alderantziz proportzionala, desbideratze estandarra, eta abar) eta bakoitzak eragin jakin bat izango du eskaintzen arteko bereizketan; hortaz, kasu bakoitzean merkatuaren errealitatera egokitutako formula bat ezarri beharko da eskaintzen arteko aldeak proportziorik gabe ez desitxuratzeko.

7. koadroa

Formula matematiko bidezko balorazio automatikorako irizpideak

- Ingurumenari dagokionez hobeak diren produktuen ehuneko handiagoa [8raino]
- Emisio kutsagarri txikiagoko ibilgailuak [3raino]

Balorazio automatikorako bestelako irizpideak

- [Jaietan izan ezik] Mahai-zapiak eta ezpainzapiak berrerabilgarriak [2]
- [Jaietan] ontziteria, mahai-tresneria eta baso konpostagarri edo berrerabilgarriak [2]
- [Jaietan] Mahai-zapiak eta ezpainzapiak berrerabilgarriak [2]

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, aurrez izan dezaten eskaintzaileek.

8. Koadroa

Lizitatuzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, honela zehaztuta:

- a) **Deskripzio-memoria**, zerbitzuari eta **Ingurumen-baldintzen *checklistei*** (1., 2., 3. eta 4. eranskinak)¹² buruzkoak, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Lizitatuzaileak adierazitako espezifikazioak –bai derrigorrezkoak, bai baloratu ahalko direnak– betetzen direla **frogatzeko dokumentazio** guztia atxiki beharko zaio horri¹³.
- a) Eskaintza ekonomikoa, honako hauei dagokien zati proportzionala banakatuta dagoela:
 - langileak (orduak prezioa barne)
 - zerbitzurako erositako produktuak
 - garraioa eta ekipamendua

¹² Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentua ikusi (helbide elektronikoa honetan eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

¹³ Ziurtagiriak ugariak izan daitezkeenez, baldintzetan adierazpen hau egin daiteke: kontratua formalizatu baino lehen baino ez zaiola eskatuko dokumentazioa enpresa esleipendunari.